

# **GURE BORDA**

## LEHEN ZATIA

*Larunbat goiza da. Ama ari da igandeko lisatzen egiten eta alaba sartzen da hiru tipula eskuan.*

ALABA-AMA

**ALABA:** Nun behar ditut ezarri?

**AMA** (*irriz ari da*)

**ALABA:** Zer duzu irriz ama?

**AMA:** Baina neska, nik bi porru ekartzeko erran denat (douzut).

**ALABA:** Eta nik hiru ekarri.

**AMA:** Hiru ekarri bai eta porrurik bat ere ez.

**ALABA:** Zer dira hauiek?

**AMA:** Tipulak neska, hi bezain tipulak. Horra zer den gauaren galtzea.

**ALABA:** Barda, goizik etxeratu naiz ama.

**AMA:** Barda, edo egun goizean goizik, zenbat orenak ziren?

**ALABA:** Ez duzu behatu, nik ere ez...

**AMA:** Nun debru egon haiz lau orenak arte?

**ALABA:** Nork erran dauzu lau orenak zirela ni etxean sartzean?

**AMA:** Aitak.

**ALABA:** Ez duke ongi ikusi, gau erdi eta hogeitaz zitazken.

**AMA:** Galdegin denat nun egon haizen barda lau orenak arte.

**ALABA:** Ez da ene falta aitak orratz ttipia orratz haundiarentzat hartu badu.

**AMA:** Nolaz ditake beraz gau erdi eta hogeietan etxean balianbahintzan, hiru orenetan oraino ez bahintzan heure ohean?

**ALABA:** Zer zira hiru orenetan nere ganberan izan?

**AMA:** Bai, eta heure ohea hutsa harrapatu.

**ALABA:** Hiru orenetan aspaldian lo nintzagon.

**AMA:** Nun?

**ALABA:** Anaiaren ganberan.

**AMA:** Sekulan ez eta, zendako barda lo egin dun anaiaren ganberan?

**ALABA:** Nere ganberako ateak arrabots handia egiten baitu eta ez bainuen nahi zuek iratzar-arazi.

**AMA:** Eta zer uste dun? Heure segitzen izan den otoaren arrabotsa ez dugula entzun?

**ALABA:** Haizea zitaken.

**AMA:** Haizea bai, eta bi zalditako bat harekin. Baina nun debru egon haiz barda, lau orenak arte?

**ALABA:** Zer nahi duzu, nik ez dezaket bertzerik egin; etxeratzen naiz, bertzek ekartzen nautelarik.

**AMA:** Eta, barda, nor zen heure segitzailea?

**ALABA:** Denise Lagateikon, usaian bezala.

**AMA:** Noiz kanbiatu du harek otoa?

**ALABA:** Ez du kanbiatu, berea kolpatua da eta hortakotz barda bere anaiaren otoa zen.

**AMA:** Bego hortan, eta zenbat orenetan bururatu da bardako biltzarrea?

**ALABA:** Nere ordularian bi orenak pasa baziren, aintzinatzen ez badu segurik.

**AMA:** Hori ez, nik badakinat leku segurretik gau erditako akabo zela.

**ALABA:** Nork sakatu dautzu ilar hori?

**AMA:** Hi jeiki aintzin badun norbait izana gure etxean.

**ALABA:** Jaun Erretora bederen?

**AMA:** Ez, emazteki bat.

**ALABA:** Mayie saltsa?

**AMA:** Ez.

**ALABA:** Beronika nahasia?

**AMA:** Ez eta ere.

**ALABA:** Berdin du, ez dut jakin nahi ere nor den bazter nahasten ari. Batean herriko mutzurdinak hola errana, bertzean tanta (izeba) Filomenak hala ikasia, ni aspaldian pasatua naiz bertzek zer erranen dutenaren beldurretik.

**AMA:** Baina neska, berriz erranen eta ere, nun egon haiz barda hain berant?

**ALABA:** Berdin jakinen baituzu, erranen dautzut dena den. Biltzarreak iraun du gau erdi arte.

**AMA:** Hori bazakinat hi jeiki gabe.

**ALABA:** Eta gero paper batzu zabaldu ditugu bazter horietan.

**AMA:** Zer paper?

**ALABA:** Huna bat: *"gazten gogoetak", 43 urtetako arranda hanudia dutenentzat, 65 urtetan ere bada nahiko lana nun nahi. Baina guk gaztek ez dugu herrian lanik. Zer egin? Norat joan?"*

**AMA:** Lana duna eskas? Hago etxean bederen, baratzean badinat aza taloi (leku) ba ederra jorrazteko.

**ALABA:** *"Ofizio bati buruz guti argitzen gaituzte eta biziari buruz batere ez. Laborari etxeak husten ari dira. Laster gure eskualdeaz desertu haundi bat eginen dute. Laborari tipiek al egin beharko dute eta beti bezala, makinun ttipi jaleak, errege izanen dira. Hori ezin onartua da. Horrengatik behar dugu jakitate gehiago bildu".*

**AMA:** Jakitate gehiago bildu... egia haundia, hogoi urtetan ez dakin zoin diren porruak eta zoin tipulak.

**ALABA:** Paper hunek erran nahi duen jakitatea ez da zuk diozun bezalakoa, ama.

**AMA:** Errana denak jadanik ere jakitatea galgarri dela.

**ALABA:** Jakitatea galgarri? Baina, guk jakitatea baginu, noren galgarri laiteke, ama? Gure galgarri? Ala gutaz baliatzen direnen galgarri?

**AMA:** Beti arrazoin dun nerekin bederen baina hola segituz nik ez dakinat zer egingo duzuen.

**ALABA:** Herria azkatu.

**AMA:** Zerria bazkatu?

**ALABA:** Gure herrian bada hola ere aski zerrikeria.

**AMA:** Bai eta arras merke, segi, segi.

**ALABA:** *"Lanik ez duguno, jakitetarik ez duguno lantegirik ez deno, ez dugu onartzen: Eliza Berrien egiteko eskeak egin ditzen."*

**AMA:** Ez otoi holakorik erran, alaba, aire gaiztoak erreko gaitin.

**ALABA:** Rogazionetako prosesionetan, apezak airea benedikatzen du ez dadin aire gaiztoki izan.

**AMA:** Zer ditutzue, gisa hortako solasak ibiltzen gazten artean?

**ALABA:** Zer uste duzu? Beti denboraz eta bertzeen erranetaz baizik ez direla mintzatzen, batzu bezala?

**AMA:** Bertzeen erranetaz...

**ALABA:** Bertzeen erranetaz, bai ama. Hunek kasetan horrela ikusia eta horrela da. Harek, telebistan horrela erran eta ez da dudarik. Apezak predikutik hori erran eta ez da bertzerik.

**AMA:** Zendako dira, beraz hoinbertze izkirio eta mintzaldi?

**ALABA:** Batzu gure itsu-arazteko eta bertze batzu guri nahi dutena sinets arazteko beren abantailetan.

**AMA:** Hi ere bertzen ideiekin ote habilan, beldur naun.

**ALABA:** Ez ama, entzun zazu, argitu nahi zaitut.

**AMA:** Bai eta argitzeko partez, gogoa iluntzen dautan.

**ALABA:** Alabaina, indarra dutenek, zure baitan, beren ideiak sartuak dituzte. Ni indar gabea izanik eta, zure burutik, horiek, nola ken dezazket?

**AMA:** Habil otoi baratzean bi porruen bila. Edo, ez, segizan nere tokian, hobe dinat nihaurek joitea bertzenaz hik porruen partez bi pastenagre ekarriko daiztan.

**ALABA:** Bularretako hauiek ere lisatu behar ditut?

**AMA:** Nylon-kiak ez ditun lisatzen neska. Ez dakin: ez lisatzen, ez josten, ez kozinatzen. Nik ez dakinat, noiz ikasi behar dudan hik bizitzen. *(joaki da)*

**ALABA:** *(Bakarraik, jarririk da lisatzen, mokanes bat egin eta burua pausa):* Gaixo ama, nik ez dakit zoin den xarbota (tomillo) eta zoin den perrexila baina ez naiz munduan bakarra *(Pausa)*. A, barda lo egin banu bederen.

*(Burua bi eskuen artean du, erdi lo. Oto batrek turrutatzen du eta punpean joaki da.)*

**AMA** (*Sartzen da bi porru eskuan eta ohartzen da lisa-burdina oihalaren gainean utzia duela*):

Neska lukainka, nik ez dakit noiz bilduko duen funts doi bat, sekulan ez naski.

**ALABA** (*Sartzen da*): Zuentza ere bada gutun bat.

**AMA**: Heure bularretakoek bero aldi bat ederra hartu dine.

**ALABA**: Zer da?

**AMA**: Zer den? Ez dakina lisa-burdina hunen gainean pausatu behar dela?

**ALABA**: Bai, ama.

**AMA**: Eta, beraz, zer egingen huen heure bularretakoak erre balire? Bihar etxean egon beharko.

**ALABA**: A, hori ez, horiek gabe joanen banintzan ere.

#### AMA-AITA-ALABA

**AITA** (*Sartzen da*): Zonbat orenak dira?

**ALABA**: Aita, ez zaitela otoi, bota zikin horiekin sukaldean sar.

**AITA**: Zer zikin dute? Izar ihintzean garbituak ditinat.

(*Turrua bat entzuten da, urrunetik*)

**ALABA**: Ogiketaria, joaki naiz.

**AMA**: Ordu onean heldu zira: Pariseko semearen gutuna badugu.

**AITA**: Gaizo Jakes, zer dio? Ongi da?

**AMA**: Segidan ikusiko dugu.

*"Aita eta ama maiteak,*

*Ez da lehen aldia Pariseko berriak etxera igortzen dituztala beraz ez naiz beti gauza beren errepikatzen ariko. Gogoetatu naiz luzaz eta funski delibero bat hartu aintzin eta orain nihauretz segur naiz, hautua egin dut: berriz herrira nahi dut itzuli. Nere emaztegia ere okaztua da hemengo bizi moldeaz! Galdatu diot aldi bat baino gehiaotan Ameriketara joan nahi duenez eta harek ere erraiten daut: "neretzat ez da Amerikarik, Eskual Herria balio duenik." Beraz iduritzen zauku gurea egin dezakegula gure sorlekuan berean. Gisa guziz, ez gira nihun orain Parisen giren baino dohakabeago izanen. Nola hunarat etortzean ofiziorik ez naukan, sei hilabetez ibili naiz, hargin eskola batean eta orain hargintzan segituko dut. Nere maiteak aldiz lan bera egiten ahal luke Baionan edo inguru horietan. Baina, berriz itzultzekotz aterbe bat behar ginuke eta pentsatu dut, gure herria, gure etxean, ahuerrik eta hutsik hor dagole "Gure borda". Ez litaike munduan atsegin haundiagorik neretzat, zuen baimena banu: gure bordaz etxe pollit baten egiteko. Sorlekuari eta aita-ameri hurbilduz, zer bozkarioa ez litake neretzat, etzekoen lehen auzoko izaitea. Agian nere amets hori egia bilakatuko da. Bitartean, zuen erantzunaren zai nago, pentsatuz lehen bai lehen idatziko duzuela.*

*Gorputzez urrun, baina bihotzez hurbil. Mila musu.*

*Jakes"*

**AITA**: Zuk zer diozu?

**AMA**: Nere baimena segidan baluke, zurea?

**AITA**: Nerea ere bai, baina bertze anai-arrebek zer erranen dute?

**AMA**: Zer nahi duzu erran dezaten?

**AITA**: Zazpi haurride badira, eta etzeko, bat aski.

**AMA**: Soldadoari etxea utziko dugu, Jakes-i borda eta bertzeak neskak dira, aski dute etxe oneko seme batzueri begiratzea.

**AITA**: Beharba bi mutzurdin gelditu beharrak dira eta bertzeak serora joan.

**AMA**: Gerokoak utzi geroko eta goazen oraikoaz, zer behar dugu Jakesi igorri?

**AITA**: Zuri zer iruditzen zazutzu?

**AMA**: Gure borda emaiten diogula gogotik.

**AITA**: Emaiten, emaiten, errez da erraiten, emaiten urririk da.

**AMA**: Zer uste duzu ez duela urririk edo merke nahi?

**AITA**: Halere urririk eta merkera bada bide.

**AMA**: Zer behar dugu gure semeari gure borda saldu? Paga arazi?

**AITA**: Ez dakit, badugu gero ere denbora mintzatzeko, orain joan behar dut sasi mozten segitzera, ez baititu nehork egingen nik egiten ez baditut.

**AMA:** Baina gizona, gutuna huni (letra huni) ihardestea sasi moztea baina presatuago da. Errazu zer behar diotan ihardetsi.

**AITA:** Zuharek ikus.

**AMA:** Eta zure partez zer behar dut ezarri?

**AITA:** Nik etxaldea hartu bezala utzi nahi dutala osorik eta etxeko segida hartzen duenarekin dela etxe parteak egitean.

**AMA:** Arrazoin duzu, hori eta bera igorriko diot, egun berean.

*(AITA joaki da kanpora, AMA aldiz subardara. Sartzen da ALABA ogiekin. AMA ere berriz sukaldera heldu da)*

**ALABA:** Hiru ogi hartu ditut beti bezala.

**AMA:** Ongi dun, orain kasu egizan suaren gainean ezarri dutan esnari. Joan behar dinat ganberaraino.

**ALABA:** Kasu eginen du, zaude gostuan.

*(AMA joaki da)*

## ALABA-KRIZTINE

**KRIZTINE** (*Sartzen da*): Ez da nehor?

**ALABA:** Ni bakarrik.

**KRIZTINE:** Zer ari hiz?

**ALABA:** Esnea irakin zai.

**KRIZTINE:** Lo egin dun?

**ALABA:** Egin nezaken gehiago ere, barda, debrua ikusi dinat ezin lokartuz.

**KRIZTINE:** Zer hintzen, Gabriel gogoan?

**ALABA:** Ez, hurbiltzekorik ere.

**KRIZTINE:** Pantxo?

**ALABA:** Oraino gutiago.

**KRIZTINE:** Zer huen berriz ezin lokartuz?

**ALABA:** Oilarra, oilar bat tirahala kukuruka.

**KRIZTINE:** Aski dion lepoa bihurtzea.

**ALABA:** Banakin zoin den, egin dezaken laster.

**KRIZTINE:** Zenbat oilar dituzue?

**ALABA:** Baditun hiru zaharrak eta naski oilasko batzu ere oilartzen hasiak.

**KRIZTINE:** Eta noiz jaikia haiz?

**ALABA:** Bederatzi orenetan, eta hi?

**KRIZTINE:** Orain doi-doia, hamaika orenetan.

**ALABA:** Beraz ez dun gauza haundirik eginik.

**KRIZTINE:** Lan handirik ez, bainan litaniak adituak ditinat eskuaraz eta latinez, bietan.

**ALABA:** A bai, hik ere?

**KRIZTINE:** Bai, batean biltzarreak, bertzean antzerkia, j merkatura ez bada dantzara, aste egun ala igande beri kurri girela.

**ALABA:** Utzi, utzi mintzatzerat, gu baino lehenago geldituko ditun berak. Ni segurik aspaldi pasastua nun bertzek zer erranen dutenaren adinetik.

**KRIZTINE:** Ni ere bai, baina etxekoak ez bada, kanpokoak bederen entzuten ditinat nitaz mintzaten.

**ALABA:** Baina Kriztine, utzi mintzatzera. Nahi dutena erran dezatela. Hori berdin zaukun. Baitezpadakoena guk egiten dugun lana dun.

**KRIZTINE:** Arrazoina. Ez diant uste jende zaharrekin zerbeit egiten ahal dugula... Gure Herria zertan den, gazteri diagun senti arazi behar. Zaharrek ez dine deus konprenitzen.

**ALABA:** Gaztek gure alde badira, ohartzen badira gure galtzaleak zoin diren, orduan partida irabazia diagun.

**KRIZTINE:** Bardako biltzarrea biziki ona zunan...

**ALABA:** Horrelakoak behar litazken aste guziez. Jendean, populuari egia osoaren jakinaraztea, hori, gauza izigarria dun...

**KRIZTINE:** Uste dinat, Gabriel-ek gure problemak biziki ongi ikusten dituela. Neri segurik zernahi ikas-arazi daitan...

**ALABA:** Neri ere bai! Biziki buru argia din. Eta zer langilea. Kutxu-kutxu, beti zerbeit ari dun. Bizpahirur aldiz, etxera etorri dun, eta, sukalde huntan zonbeit solas ibiltzen ahal ez ginituelako nere ganberan sar-arazi dinat... Luzaz mintzatzen gintunan gure Eskual Herriaz eta haren salbatzeko hartu behar dugun bidez... Artikulu asko idatzi ditinagu elgarrekin...

**KRIZTINE:** Hori bazakinat...

**ALABA:** Alta, auzokoek ez zitenan ez uste, gure Herriagatik lanean ari ginela bi-biak ganbera batean.

**KRIZTINE:** Baditun beti arima garbiak, bertzen zikintzeaz arta hartzen dutenak, lagunak ukaiteko.

**ALABA:** Erbi saltsa on baten egiten ez dakine, eta jende saltsa egiten, zoin trebe.

**KRIZTINE:** Bultaka nahiago niken bortuan, abere basen eta zakur urrhurien erdian bakarrik bizi, horrela jenden erdian baino.

#### ALABA-KRIZTINE-AMA

**AMA** (*sartzen da*): Zer da esne erre usain hori? Neska toleta.

**ALABA:** Oisus. Ni ohartu gabe goiti joan da.

**AMA:** Ez din lehen aldia... Zer dion Kriztine, hemengo aldi?

**KRIZTINE:** Ez nakien denbora nun pasa eta...

**AMA:** Nik segurik banakiken (*Joaki da*).

#### KRIZTINE-ALABA

**ALABA:** Eta, zoin huen asarrenik aita ala ama?

**KRIZTINE:** Biak berdin. Batek huia, bertzeak naka, batek xanpa, bertzeak ausik.

**ALABA:** Eta gero? Zer egin dun?

**KRIZTINE:** Kantuz etorri hunaraino.

**ALABA:** Kantuz, zer kantu?

**KRIZTINE:** "Gauden aitak iduri fededun laborari."

#### ALABA-KRIZTINE-SEMEA

**SEMEA** (*Sartzen da soldado beztimentan*): Kantu hori entzutearekin uste nuen elizan sartzen nintzela egun on serora geiak.

**KRIZTINE:** Egund on apez-geia. (*Besarkatzen dira*)

**ALABA:** Anaia maitea, ez gintukan segur hi gogoan.

**SEMEA:** Badakinat soldadoez ez dela nehor guti baizik oroitzen. Guk aldiz, eskualdun neska gazteak eta Eskual herria ez ditiagun sekulan ahanzten.

**KRIZTINE:** Eskual Herria hitz hori...

**SEMEA:** Eskual Herria hitz hori eta lur hori hemendik urrundu-eta dun, bakarrik ezagutzen eta maitatzen.

**KRIZTINE:** Beti Alemanian haiz?

**SEMEA:** Bai, eta aita ere han egon zunan 5 urte.

**ALABA:** Hango neskak biziki ederrak omen dituk?

**SEMEA:** Ez dinagu bihirik ikusten ere...

**KRIZTINE:** Nola pasatzen duzue denbora, neskarik ikusi gabe?

**SEMEA:** Ikustea bat dun, baina ikusi eta ere Alemantsa bati nola mintza?

**KRIZTINE:** Heure aita ere hasi zukan lehenik keinuka eta gero emeki-emeki alemana ikasten.

**SEMEA:** Uste badun alemana ikasteko gutizia badutala, frantsesa bortxaz ikasia izanki eta...

**ALABA:** Ala, ez duzue denborarik?

**SEMEA:** Badinagu bertze egitekorik.

**KRIZTINE:** Nola pasatzen duzue denbora?

**SEMEA:** Ahal bezala.

**ALABA:** Zer hartzen zirezte?  
**SEMEA:** Beti zerbeit eta deusik ez.  
**KRIZTINE:** Oraiko soldadoak ongi direla diotek.  
**SEMEA:** Biziki ongi, etxean baino hobeki.  
**ALABA:** Zer pena neskek ez baitute oraino soldadogorik egiten.

#### ALABA-KRIZTINE-SEMEA-AMA

**AMA** (*Sartzen da*): Ramuntxo, nere semea. Nola etorri haiz?  
**SEMEA:** Lehenik burdin bidez.  
**AMA:** Eta gero? (*Besarkatzen dira*)  
**SEMEA:** Oto-stop, neskak bezala.  
**ALABA:** Guri bezain aise gelditzen dituk?  
**KRIZTINE:** Zonbeit aldiz mutiko ile luze horieri ere gelditzen ditun.  
**SEMEA:** Bai, ustez eta neska eder bat den.  
**AMA:** Noiz arte etorria haiz?  
**SEMEA:** Hamar egun.  
**AMA:** Biziki ongi heldu haiz. Herriko bestak, heldu den igandean ditiaguk.  
**SEMEA:** Hobe segur. Jostatzen ahalko naiz.  
**AMA:** Gaixo Ramuntxo, atsegin handia diat hire berriz ikustez.  
**SEMEA:** Nik ez ote?  
**AMA:** Nahi duk zerbeit? Gose haiz? Arraultze eta xingar prestatuko deat, edo bi lukinka xixter?  
**SEMEA:** Ez du balio ama. Ez naiz gose.  
**AMA:** Funtsean, laster bazkalduko gaituk. Jar hadi bederen, hain segur akitua haiz. Bazkal ondoan lo aldi bat ederra egiten ahalko duk... Mihiseak ere zuri-zuriak dituk.  
**SEMEA:** Ongi da ama. Ongi da...  
**AMA:** Baniak, nire lanetara... Hago neska horiekin... Segur nuk badutela zer eta zer erran... (*Joaki da*).

#### ALABA-KRIZTINE-SEMEA

**ALABA:** Errak Ramuntxo, gaur dantzatzera goatzik, gurekin etorriko haiz?  
**SEMEA:** Berdin bai eta berdin ez, gero ikusiko.  
**KRIZTINE:** Zer haiz ahalge ile laburrak dituzkalagoan?  
**SEMEA:** Ez baitezpada. Aldatzerat joaki naiz.  
**ALABA:** Hatoz segida, jan-aintzinekoa hartuko diaguk hiruek elgarrekin.  
**SEMEA:** A. Hori bai... (*Joaki da*)

#### ALABA-KRIZTINE

**KRIZTINE:** Eta hi noiz etxeratu hintzen barda?  
**ALABA:** Lau orenetan eta hi?  
**KRIZTINE:** Argi urratzean. Gure etxean argia bizi.  
**ALABA:** Nor zen sukaldean?  
**KRIZTINE:** Ama, goizeko otoitzaren egiten ari.  
**ALABA:** Hik egiten ditun otoitzak goiz-arratsetan?  
**KRIZTINE:** Sekulan, eta hik?  
**ALABA:** Nik ere ez.  
**KRIZTINE:** Nola hartu dute heure etxean paper hura?  
**ALABA:** Ez dinat oraino amari baizik erakutsi.  
**KRIZTINE:** Nik ere nere ahizpari bakarrik.  
**ALABA:** Zer dio Mainer-ek?  
**KRIZTINE:** O, harentzat ere badela oraindik aski eliza. Alabaina, harek ere, bertze ainitzek bezala bere geroak din arrangura handiena. Gure eskualde hauetan lantegi guztiak hesten ari ditun... Eta ez dauzkun Elizak sakelak beteko. Orainakoan segurik, husten dauzkun eta...

**ALABA:** Egia haundia. Jainkoa. Beharrik gure ait'amek ez gitine entzuten.

#### ALABA-KRIZTINE-SEMEA

**SEMEA:** Hemen naiz.

**KRIZTINE:** Laster egiten dituk hik, harat-hunaratak.

**SEMEA:** Ez beti bainakien ordu oneko etorri behar nuela.

#### ALABA-KRIZTINE-SEMEA-AITA

**AITA** (*Sartzen da*): Zer da egun ere besta gure etxean?

**ALABA:** Hala iduri luke.

**SEMEA:** Agur aita.

**AITA:** To Ramuntxo, gaizo mutikoa, hemen haiz? (*Besarka*) Frantzia behar bezala zerbitzatzen duk bederen?

**SEMEA:** Hola holaxet... Eta zu aita, nola zira?

**AITA:** Ongi... Ongi eta hi?

**SEMEA:** Xoria ohantzean bezain airos.

**AITA:** Zenbat egunentzat etorria haiz?

**SEMEA:** Hamar egun, labur izanen dira.

**ALABA:** Aita, zatoz gurekin brindiz egiterat.

**AITA:** Ez, hortarik ez, nik nahiago dinat baso bat gorri.

**ALABA:** Ekarriko dautzut beraz gorritik.

**AITA:** Zer dion Kriztine? Arras ixilik hago.

**KRIZTINE:** Beldur naiz sobera erran.

**AITA:** Zer, bardako berriez?

**SEMEA:** Zer zen barda?

**AITA:** Hobe aise bereri galdetzea eta ni helen ez naizelarik.

**ALABA:** Bertzenaz ez baituk egia osoa jakinen.

**KRIZTINE:** Alabaina, badituk gauza batzu erraiten ahal ez direnak.

**AITA:** Errak Ramuntxo, soldado jantziak laster aldatu dituk...

**SEMEA:** Ez bainintuen zikindu nahi.

**AITA:** Zer haiz, lana gogoan etorria? Biba hi, zerritegiak urdeak bezain zikinak dituk eta zerriek basurdeak iduri.

**SEMEA:** Eta gero?

**AITA:** Ez zauk gogoratzen?

**SEMEA:** Ez.

**AITA:** Nahi nitek goiz huntan behin garbitzen ahal bahintun.

**SEMEA:** Zer zerriak?

**AITA:** Ez mutikoa, zerritegiak.

**SEMEA:** Eginen ditut, hitzemaiten dautzut.

**AITA:** Heo bea, lehen bezain ongi eginen dituzkanez? Ni, mahastirat noak, itzuli bat. Maritxu; ama nun da?

**ALABA:** Ez dakit, ez da bulta huntan ageri.

**AITA:** Gero arte. (*Joaki da*)

#### ALABA-KRIZTINE-SEMEA

**KRIZTINE:** Nik ere joan behar dinat etxe alde.

**ALABA:** Zer presa dun? Bertze erasi aldi baten entzuterat?

**KRIZTINE:** Hori gauza segurra: "*Nun hintzan neska? Bazkal orduko beti nunbeitik ateratzen eta patata xuritzeko orduan sekulan ez ageri.*"

**ALABA:** Guk segurik, lur sagarrrik ez dugunean, *pois cassé* jaten diagun. Aski duzue berdin egitea.

**KRIZTINE:** Aitak ez din maite.

**ALABA:** Aipa zaion gerla denboran zer jaten zuen? Segur nun gero, *pois cassé* iretsiko duela.



**KRIZTINE:** Aise mintzo haiz hi.

**ALABA:** Kriztine, patata xuritzen joiteko orde, nere ganberara etorri hadi, bi dizka berri entzunaraziko deztenat.

**SEMEA:** Ni ere etortzen ahal naiz zuekin?

**ALABA:** Berdin, zendako ez?

(*Eta hiruak joaki dira, kantuz errepikan "Ez zian aberatsa, ez zian pobrea, baina haren bihotza, zer urrezko kalitza"*)

## AUZAPEZA

**AUZAPEZA** (*Sartzen da bere etxean bezala*): Gazte horien omorean. Bazterrak, horiek nahasten dituztela, nork erran lezake? Nun zira Dominika?

## AUZAPEZA-AITA

**AITA** (*Sartzen da*): Egun on jaun mera, zu hemen?

**AUZAPEZA:** Ezin uka, nere etxean bezala sartu naiz.

**AITA:** Behar ere, ez ahal zira atean egonen eskelari bat bezala?

**AUZAPEZA:** Eske etorria naiz, eske.

**AITA:** Zu bezalako eskelariak ez dira maiz etortzen. Zarea nun duzu?

**AUZAPEZA:** Zarean baino gehiago eremanen dut huntan.

**AITA:** Jar zaite jaun mera, jar.

**AUZAPEZA:** Milesker.

**AITA:** Eta, nere paper heietz, jaun prefetak zer errantzun eman dautzu?

**AUZAPEZA:** Lehen bai lehen, behar dena eginen duela eta egoiteko gustuan bere egin ahalak eginen dituela onartua izan dadin.

**AITA:** Biba hura, a, zer gizona.

**AUZAPEZA:** Errana nauntzun, haren ikustera joanen nintzela eta nerekin, hitza, hitz da. Asteazkenean egun osoa hartu dut berarekin solastatzeko eta garbiki erran dirot, nere herriko adixkide haundienetarik bat zirela eta hortakotz baitezpada nahi dutala zure galdea onartua izan dadin.

**AITA:** Milesker jaun mera, milesker. Zer hartuko duzu *Ricard* bat, ala nahiago duzu arno xorta bat?

**AUZAPEZA:** *Ricard* bat berdin, Baigurako urarekin.

**AITA:** Baigurako ura, zuri esker dugu hori ere jaun mera, ez du berdin balio. Lehen, zer bidea ez ginuen egin behar egun guzietz, iguzkiak sobera berotu gabe, edateko ur-keta errekarat?

**AUZAPEZA:** Eta ziternako ura?

**AITA:** Bai, nere emazteak behin ikusi zuen sukaldeko errobinetatik, holako zizari bat ateratzen eta geroztik akabo, ez zuen kozinaren ura ere hortarik nahi.

**AUZAPEZA:** Ez da harritzeko. Orain, denek baduzue herriko ura. Helduden urtean behar ginuzke etxe guzietarat bideak egin, bozetan pensatzen balinbagira segurik.

**AITA:** Ez da dudarik, zer zira kontrarioen beldur?

**AUZAPEZA:** Alabaina, herritarrez geizki ikusia izaiteko aski da ongia egitea.

**AITA:** A, hori hala da.

**AUZAPEZA:** Azken aldian ere, badakizu nor nuen etsairik haundiena?

**AITA:** Ez naiz oroitzen.

**AUZAPEZA:** Pottoloteiko okerra.

**AITA:** Gaizo pottoloa.

**AUZAPEZA:** Nere denboran egin dutan zerbitzurik gehiena hari egin ondoan. Neri esker hasia da zahar arrando 60 urtetan hunkitzen eta neri eske du heien Pettan-ek ,ere sodado zerbitzurik ez egin, eta gero...

**AITA:** Beti hola da jaun mera, ez du balio holako jenderi kasu egitea, ikusi eta nor diren: 15 ardi, erdiak segurik mainku eta 5 behi zahar, zakurra bezain gizen.

## AUZAPEZA-AITA-AMA

- AMA:** (*Sartzen da*) Ongi etorri jaun mera. Ori, bazterrak garbiak harrapatzen dituzu.
- AUZAPEZA:** Egun on, etxeko anderea, zaude gostuan, ez dut bazterrerri biziki behartzen aintzinean Rikarra delarik. Zuen osasunari.
- BIEK:** On derautzula.
- AUZAPEZA:** Biak hemen zirezteno behar dautzuet erran zertarat etorria naizen.
- AITA:** Esler etorria omen da...
- AMA:** Leku txarrera heldu zira sokseta gure etxera.
- AUZAPEZA:** Ez naiz sokseta heldu anderea.
- AMA:** Sos ekartzerat beharba?
- AUZAPEZA:** Bai, uste ez baduzu ere.
- AMA:** Hori bertzerik da.
- AUZAPEZA:** Huna. Lehenik behar dautzuet galdatu egiazki ni baitan konfientzia baduzuenentz?
- AITA:** Konfientzia, jaun mera? Nik segurik bai, zer zira dudatzen?
- AMA:** Nik ere bai, zendako galdatzen duzu hori?
- AUZAPEZA:** Zeren, badira beti izpiritu bihurri batzu, heieri zerbitzu egin nahiz, heien etxera joan eta burua gora erranen dutenak: "*Ez da gure etxetara heldu, gure fagoratzeko, ele ederra dariotela.*"
- AITA:** Bada denetarik mundu huntan, gu ez gira horietarik.
- AUZAPEZA:** Hortakotz etorria naiz zinez adixkideki. Aste huntan, Parisetik letra bat ukan dut. Pariseko haun haundi batenganik. Ongi ezagutzen dut, gerlako lagun bat da.
- AITA:** Gobernamentuko gizonetarik?
- AUZAPEZA:** Erranen dautzut segidan. Horren aita Frantzi-ko errepublikako president ohi baten anaia zen eta horren semea aldiz, orain armadako minixtroaren sekretario da.
- AITA:** Ez da nor-nahi. Jende aberatsetarik.
- AUZAPEZA:** Egia diozu, aberatsetarik. Holako horiek badute diruz nahikoa eta bazinakite zer nahi duen?
- AITA:** Jainkoak ahal daki?
- AUZAPEZA:** Behar dena pagatuz; borda bat.
- AMA:** Holako jaun batek ez ahal du ardirik?
- AUZAPEZA:** Erran gabe doa. Borda bat nahi luke eskual herri ederran, mendieri hurbil, itsasotik ez urrun, bakantzen pasatzeko. Zorigaitzez ez da borda eskasik gure herrian. Baina, lehen-lehenik etorri naiz zuen ikusterat: adixkide bezala. Zuen borda...
- AITA:** Baina, gure borda, arras zaharra da, murrak makurrak ditu eta teilatua zartua.
- AUZAPEZA:** Hortakotz, zuentzat ez du deus balio eta harek hori aski...
- AITA:** Bainan, jaun mera, ez du itxurarik ere, nola nahi duzu gure borda zaharrean holako jaun bat laket dadien?
- AUZAPEZA:** Berdin, zuek ez duzue sekulan borda hori antolatuko eta harek sosa mustupilka badu hor bizitegi baten egiteko.
- AMA:** Eta zer gizon da diozun hori?
- AUZAPEZA:** Nire adixkide handi bat, izigarriko jauna. Gerlako kolpatu haundia, makilekin dabila. Ez da xori buru bat, hiruetan salbatua du Frantzia, hiruetan segurik. Badu, papoaren bete medela...
- AITA:** Eta, gure bordaren ikusterat etorri beharra da?
- AUZAPEZA:** Bai pentsa. Hemen dut haren azken letra, begira zazue... "*Je comte sur vous, très cher ami et vous garantis que je payerais comptant pour l'achat d'une borde en Pays Basque la somme de: cinq millions d'anciens francs.*"
- AMA:** Bortz miliun?
- AUZAPEZA:** Ez da dudarik, ze uste duzu? Zuen tronpatzerat etorria naizela?
- AITA:** Bortz miliun, borda zahar batean, ezin onetsia da.
- AUZAPEZA:** Bai jauna, bortz miliun ukaiteko aski ditut zuen bien sinadurak. Baleki bale: atzo, notariarekin bazkaldu bainaiz, aipatu diot, izenik erran gabe bixtan da, aipatu diot beraz gure afera eta paper hau eman daut. Lehen bai lehen sinatu behar zinuek eta gero gauzak bixiki errexxi eginen ditugu. Zuen sinadura eman nahi balin baduzue hementxe...
- AMA:** Nerea, segidan izanen duzu.
- AUZAPEZA:** Eta zurea?

**AITA:** Nerea ere bai, guretzat bortz miliunek balio ahal dute lau murru zahar horiek baino gehiago.

**AMA:** Hola bederen abantaila hartuko digu beharba, bertzenaz luza gabe, bortxatuak gintazke lur pozi batzuen saltzerat, gure zorren pagatzeko.

**AITA:** Ez da ez, gure etxean zor haundirik baina hola etxe aintzindei hau berrituz "gita" bat edo bi egiten ahalko ditugu.

**AUZAPEZA:** Arrazoin duzu, hortan da etxalde ttipien geroa.

**AMA:** Nik segurik lehen-lehenik hormatzeko bat eros nezake.

**AITA:** Eta nik borda berri bat egin baneza?

**AMA:** Bai eta horiek denak baino lehenago ikuztegi bat. Gure etxean, barkatu jaun mera baina, ez da kabinetarik ere.

**AUZAPEZA:** Hortan ez zuen hutsa, orain arte ez zinuten urik...

**AITA:** Eta sosa noiz hunkiko dugu?

**AUZAPEZA:** Laster, bertze hilabetearen hastetik.

**AMA:** Eta hori, zuri esker jaun mera. Atsegin ginuke gurekin bazkal bazinete.

**AUZAPEZA:** Bertze aldi batez, egun ez dut astirik.

**AITA:** Zaude gurekin jaun mera, laster bazkalduko gira.

**AUZAPEZA:** Bertze aldi batez bai, egun ez, bi orenetako Baionan izan behar dut.

**AITA:** Eta gure bordaren saltzapekak, zer gostako dira, paper sariak eta...

**AUZAPEZA:** Nahi baduzue, notariarekin nihaurek eginen ditut behar diren paperreria guziak.

**AMA:** Milesker, jauna, milesker.

**AUZAPEZA:** Ez da zeren...

**AMA:** Zuregatik bortz miliun hunkituko ditugu eta... Zuri ere, zerbeit eman behar ginuke ez?

**AUZAPEZA:** Boo... ez dut diruagatik egiten... Zueri zerbitu egiteko ari naiz;

**AITA:** Holako zerbitzuak, jaun mera, kario pagatzen dira... Kario.

**AUZAPEZA:** Egia. Holako saltze batzu izaiten direlarik, batzuek kapitalaren hamarra hartzen dute... Baina gure kasuan, bortz miliunen hamarra: borz ehun mila heldu litake... Hori, biziki sobera zaut... Ez naiz makinun bat.

**AITA:** Ema beharra, gogotik emanen dautzugu gero.

**AUZAPEZA:** Bo... Berrehun bat milako hori aski zaut...

**AMA (Bere senarrari):** Ez dakit zer pentsatzen duzun zuk, baina nik, berrehun mila t'erdi eman nezaioke. Ongi zaitzu jaun mera?

**AUZAPEZA:** Hori bai... Hobe digu denek arrazoinean hartzea, hola gauzak beti ongi iragaiten dira.

**AMA:** Ongi mintzo zira jaun mera... Huntarik azken xorta bat?

**AUZAPEZA:** Ez, milesker, joan behar dut, orena bere bidean baitoa. Agur adixkideak, egizue bazkari.

**AMA:** Milesker, jaun mera, gisa bera.

**AITA (AUZAPEZA joaki da):** Gure borda.

AITA-AMA

**AMA:** Bortz miliun.

**AITA:** Batzuen eskasa bertze batzuen soberakin.

(Pausa)

**AMA:** Baina, zer ari gira? Zer egin dugu?

**AITA:** Zer duzu?

**AMA:** Jakes?...

**AITA:** Gure semea.

**AMA:** Eta gure borda. Barkazak, Jakes, ez nuk hitaz orroitu ere.

**AITA:** Orain ez dezakegu bertzerik egin: biek sinatua dugu.

**AMA:** Jaun merari harrapatzerat joaki naiz segidan.

(Eta kanpora abiatzen da)

**AITA:** Ez du balio orai berantegi da.

**AMA:** Berantegi, berantegi... Eta zu ez zira oroitu, haren letra goiz huntan ukana eta?

**AITA:** Oroitu bai, bainan...

**AMA:** Zer baina?

**AITA:** Jaun merarekilakoa egiteagatik...

**AMA:** Zer da etxeko seme bat baino lehenago jaun mera?

**AITA:** Ez du balio bururik berotzea, berdin ez dezakegu deus kanbia. Gertatuak gertatu orain hola da.

**AMA:** Bai eta orain zer behar diogu igorri gure semeari?

**AITA:** Ez dakit.

**AMA:** Ez dakit, nik ere ez dakit.

**AITA:** Aski diozu izkiriatazea, bortz miliun horik gogoan, ez girela hartaz oroitu ere.

**AMA:** Aski diozu zuk egitea, nik ez dut horren ezartzeko bihotzik.

**AITA:** Nola behar diot ezarri, eskuaraz ala frantsesez?

**AMA:** Frantsesez hobe. Frantsesez ari girelarik, iduri bailuke ez girela gehiago gu mintzo. Baina nik ez dut ikusi nahi ere zer ezartzen duzun. (*Joaki da*)

**AITA** (*Bere buruarekin*): Ai, bizi hau. Bizi hau debrukeri bat da. Seme maite, jaun meraren beharra ere ba, hauxe da komedia...

#### AITA-SEMEA

**SEMEA** (*Sartzen da*): Joan da azkenian herriko errege haundi-maundi hori?

**AITA:** Bai. Bi orenetako Baionara joan behar dik. Eta him nun hintzen orai arte?

**SEMEA:** Kriztine eta Maritxurekin.

**AITA:** Ez diat galdegin norekin, baina nun hintzen?

**SEMEA:** Ganberan.

**AITA:** Zer ari ganberan?

**SEMEA:** Soinu entzuten.

**AITA:** Soinua aski balitz bizitzeko.

**SEMEA:** Zer da?

**AITA:** Zer den? Gure zerretei zola beti berdin zikina.

**SEMEA:** Garbituko dut aita.

**AITA:** Ez duk aski erraitea, egin ere behar dik eta segidan.

**SEMEA:** Oui, mon commandant.

#### OIHALA

# BIGARREN ZATIA

## AMA-ALABA

**AMA:** Igande edo astelehen, gure etxean beti berdin eta beti norbeit, Kriztine ez bada, Jakobe...

**ALABA:** Eta gero, zer da?

**AMA:** Eta gero zer den? Jan aintzineko botoila beti hutsa, beti norbeit guri denbora galarazteko eta gauaz berantean argi erretzen ari, sukaldean ez bada ganberan.

**ALABA:** Gure sukaldean, biziki argi gutti erretzen da.

**AMA:** Eta hire ganberan, zonbat gau pasatu ditu Gabriel-ek?

**ALABA:** Gau osorik sekulan, gauaren erdia, ez dakit, bi edo hirutan.

**AMA:** Mutiko bat eta neska bat ezkondu gabe ere ganbera batean.

**ALABA:** Eskandala ote da gizon-gei batekin?

**AMA:** Eta orain nun da gizon-geia? Hitaz ongi baliatu eta bertzen baten enganatzerat joana.

**ALABA:** Eta gero zer da?

**AMA:** Eta gero zer den? Nahi dun mazelako bat?

**ALABA:** Ez ama, Konfirmatua naiz.

**AMA:** Konfirmatua bai, eta gainerat Komunione haundiko egunean eskua luzatuz errana: "*Uko egiten diot deabruari.*"

**ALABA:** Bai ama, hamabi urtetan aise da uko egitea deabruari, baina gero...

**AMA:** Eta gero: ezkondu gabe ere elgarretaz aseak.

**ALABA:** Ezkondu ondoan elgarrez asetzea baino hobe.

**AMA:** Eta orain, Gabriel nun da?

**ALABA:** Ahantzazu otoi Gabriel... Gaurkoak, Pantxo du izena.

**AMA:** Pantxo edo Luxien, berdin zaitan, baina ez dinat onartzen, hemendik aintzina gure etxean mutikorik sar dadien.

**ALABA:** Ez du balio hortako oihuka hastea.

**AMA:** Sofritzen dinet neska.

**ALABA:** Sofriarazten ere bai, hogoi urtetan ez ahal naiz gehiago haur bat?

**AMA:** Agian ez, baina ez niken nahi nere alaba batek gure familian desohorerik eman dezan.

**ALABA:** Hortan ez da eskapatzerik, oraiko neskak gisa guzietarat desohoragarriak gira: esperantxetan denari lau begirekin begiratzen dute, eta luzaz ibilki balin bagita mutikoekin orduan erranen dute asko moldez, haur galtzen badakigula.

**AMA:** Bai, baina mutikoekin ibiltzetik ibiltzerat badun gauetik egunerat bezenbat bide.

**ALABA:** Alabaina, ni eguna baino nahiago dut gaua.

**AMA:** Segi, segi hola-hola: gero izanen dun gero gain hartan nigar eta hortz karraska.

**ALABA:** Zer uste duzu, hortzak ere bertze mundurat eremanen ditugula?

**AMA:** Badakina zer erraiten dudan?

**ALABA:** Zer erraiten dutan ez beharba, baina zer egiten dutan bai.

**AMA:** Zer egiten dun?

**ALABA:** Zer zira ere apazaren gisa nere kofesetzen hasia? Hari ere ez erraiten eta uste baduzu zuri erranen dutala.

**AMA:** Zonbat denbora du ez haizela kofesatu?

**ALABA:** Ez dakit batere.

**AMA:** Segur baduela bi hilabete segurik.

**ALABA:** Bi hilabete? Azken kofesioa iragan eguberrietako egina dut.

**AMA:** Zer? Zortzi hilabete ez haizela kofesatu?

**ALABA:** Zaude apalago, norbeit bada (AMA joaki da). Ez hintzen sartzen ahal, atean jo gabe?

## ALABA-SEMEA

**SEMEA:** Gora gora mintzo zinezten eta ez bainuen zuek uste gabean etorri nahi...

**ALABA:** Zer hintzen gure barrandan?

**SEMEA:** A, hori ez, ni soldadoa nun eta ez bertze jenden zeintzaile horietarik.

**ALABA:** Joan den astean, baduk horietarik bat gure etxean izana alegia eta galtzerdi saltzailea.  
Huni begira, hari begira, hau galda, hori konda, oren bat eterdi egon duk.

**SEMEA:** Zonbat galtzerdi pare erosi dazkon?

**ALABA:** Bihirik. Nor zen ez jakinarena egin diat, mintzatu niok denboraz eta dantzaz.

**SEMEA:** Egia erran berriki arte nik ere ez nakinan, hola, bazirela gordezakako presuna batzu gure zeintzeko pagatuak.

**ALABA:** Eta gainerat guhaurek pagatzen ditugunak ororen buru, eta horri nor da ohartzen?

**SEMEA:** Barreatzen ahal bagine gordezakako ala agerikoek zeintzen ahalko ez gaituzten heinean...

**ALABA:** Horiek hola, Ramuntxo, hi mutikoa bai hiz, zer pentsatzen duk nesketaz?

**SEMEA:** Itxura seriosa duena iduritzen zautan emazte mokor bat izanen dela eta aise irri egiten duena aldiz segur nun ez dela serora joanen, baina Fanfarin bat ote den.

**ALABA:** On duk jakitea.

**SEMEA:** Eta hik, zer din mutikoetaz?

**ALABA:** A, hori, gaur erranen deat ilargi xuritarat.

**SEMEA:** Nik orain nahi dinat jakin.

**ALABA:** Ez bahintz nere anaia...

**SEMEA:** Ez hintzen nere arreba izanen...

**ALABA:** Erradak otoi egia, behin ere izan haiz neska baten etxean?

**SEMEA:** Zendako galdetzen dautan holakorik?

**ALABA:** Gero erranen deat.

**SEMEA:** Neska baten etxean izan naizenez, bai, aldi bat baino gehiago eta neska baten etxean baino barnago.

**ALABA:** Egunez ala gauaz?

**SEMEA:** Gauaz, gauaz. Egunaz... emeki.

**ALABA:** Eta zer hinduen, gauaz, neska baten etxean izanki eta, gehinenik arranguratzen?

**SEMEA:** Zakurrek, marrumaz hasi eta baitziren ixiltzen denak iratzar arazi arte.

**ALABA:** Gaixo zuek. Ez dakik zer egin behar den gauaz zakurren ixil arazteko?

**SEMEA:** Hik zer egiten dun?

**ALABA:** Bota ogi poxi bat edo lukinka mutur bat.

**SEMEA:** Gogoratzea ere gehiago dun.

**ALABA:** Ramuntxo.

**SEMEA:** Zer dun Maritxu?

**ALABA:** Ahalge nauk erraiteko.

**SEMEA:** Mintza hadi gostuan, ez ote naiz hire anaia?

**ALABA:** Nahiago nitek ez bahintz hala.

**SEMEA:** Zendako mintzo haiz hola?

**ALABA:** Anaia bat baino gehiago, nahi baihinduzket maitatu. (*Elgar besarkatzen dute*)

**SEMEA:** Zer naiz hormatua, ala erakitua?

**ALABA:** Ez nian holakorik igurikatzen...

**SEMEA:** Zer dun nigarrez?

**ALABA:** Ez dakiat nihaurek ere.

**SEMEA:** Zer gertatzen da, lur ikara hurbil?

**ALABA:** Lur ikara pasatzen da, jende ikara ez.

**SEMEA:** Zer dun hola etsitzeko?

**ALABA:** Gabrieleekin hoinbeste lan egin ondoan, pentsatzen nian gure tarteko adiskidantza urrunago joanen zela. Baina joan den egunean, ez hari sobera pentsatzeko, erran daitak.

**SEMEA:** Zendako?

**ALABA:** Ez dakiat.

**SEMEA:** Norbeittek zerbeit nahaskeria egin ote du?

**ALABA:** Ez dakiat. Berdin bai...

**SEMEA:** Berari ez dion deus galdegin?

**ALABA:** Bai, erran dioiat nitaz bertze bat nahiago zuenetz, ez nintzenez gei harekilako?

**SEMEA:** Zer ihardetsi daun?

**ALABA:** Ez dela deus holakorik.

**SEMEA:** Zer erran din bertzerik?

**ALABA:** Ez ote zuten etxekeok nerekin ezkontzerat utzi nahi.

**SEMEA:** Eta?

**ALABA:** Hori baizik ez balitz etxekoek nahi ala ez nerekin ezkont litakela.  
**SEMEA:** Eta hik?  
**ALABA:** Bertze neska batekin ezkontzerat bortxatua denetz?  
**SEMEA:** Erna hadi neska... Erran, dena den...  
**ALABA:** Ez otoi, deus galdetzeko, berdin, egia osoa ez dutala sekulan jakinen.  
**SEMEA:** Zendako ez?  
**ALABA:** Ba omen baitira gauza batzu sekulan neheri erraiten ahal ez direnak.  
**SEMEA:** Ez din segur balio hortako hola trixtatzea, dione bat galtzea, hamar biltzea dela.  
**ALABA:** Hamar banintian orain arte, baina Gabriel bezalako bihirik.

(*KRIZTINE agertuz*)

#### ALABA-RAMUNTXO-KRIZTINE

**KRIZTINE:** Komisione egiterakoan, agurno bat egiten dautzuet. Ongi sartu zinezten?  
**ALABA:** Arras ongi.  
**KRIZTINE:** Eta hi, Ramuntxo?  
**RAMUNTXO:** Nahi baino goizago.  
**KRIZTINE:** Josette gustukoa zauk naski...  
**RAMUNTXO:** Bo... Gau batentzat...  
**KRIZTINE:** Sarri, heldu zirezte plazara?  
**ALABA:** Duda dun? Herriko bestak izanki eta...  
**KRIZTINE:** Eta hi, Ramuntxo?  
**RAMUNTXO:** Bai. Hain segur... baina lehenik, galtzeko botoin bat josteko badinat.  
**KRIZTINE:** Maritxuk lagunduko hau. Agur. Sarri arte... Presa baitut...

(*RAMUNTXO bera, botoinaren josten hasten da*)

#### ALABA-SEMEA

**SEMEA:** Zer dun irriz?  
**ALABA:** Galtzetako botoi bat josteko...  
**SEMEA:** Eta gero zer da?  
**ALABA:** Nun ikasia duk josten?  
**SEMEA:** Botoin baten josten ikasteko ez ahal diun unibertzitaterat joaite beharrik.  
**ALABA:** Halere dendarigoan emazte eskua nagusi.  
**SEMEA:** Ditaririk gabe, batere ez dakinat.  
**ALABA:** Nola hartzen haiz ditaririk gabe?  
**SEMEA:** Ahal bezala. Batzuetan orratza oihalian sartzeko orde, errian sartzen no...  
**ALABA:** Gaizo mutikoa. (*Eta josten hasten da*)  
**SEMEA:** Bai eta gaixo erria. Zer debru, nihundik ez dinat orratza harian sartzen ahal.  
**ALABA:** Sar-zak beraz haria orratzian.  
**SEMEA:** Orai korapiloa egiten ahal badut debruak ere ez din barreatzen ahalko.  
**ALABA:** Erna hadi mutikoa, nihaurek bietan egina ukanen nian.  
**SEMEA:** Goazen emeki eta segurki, amodiotan bezala plazerrari iraun arazteko. Bertzenaz aitak, igande goiza izanik ere, zerritei garbitzerat igorriko bainu berdin.  
**ALABA:** Hi ere, nere gisan, lan eginarekin ados haiz naski?  
**SEMEA:** Bai, bereziki egun, zerritei garbitzearekin, nahi bezain ongi ikuzi eta ere neskek gaur neri zerri usaina senti bailezakete.

(*Norbaitek atean jotzen du*)

**ALABA** (*Bere baitan*): Nor ditake? Pobren nausi aberatsa ala aberatsen mutil pobrea?  
**SEMEA:** Sartu, sartu gostuan.

#### ALABA-SEMEA-DOMINGO

**DOMINGO** (*Sartzen da*): Zer ari haiz mutikoa?

**SEMEA**: Ez duk ikusten?

**DOMINGO**: Neska bat begira eta mutiko bat josten ari, holakorik, sekulan oraino ez diat ikusi.

**SEMEA**: Ez dituk gauza guztiak ikusiak oraino, lisatzen arras trebatua nuk.

**ALABA**: To, sekulan ezkontzen bahaiz, hire emazteak suertea izanen dik.

**DOMINGO**: Jainkoaz, ez zakokala erran josten eta lisatzen badakikala bertzenaz, igandetan ez haiz pilota partida baten ikusterat ere joaiten ahalko.

**ALABA**: Aurtengo herriko bestek, itxura poxi bat baditek?

**DOMINGO**: Bai. Laster entzunen dugu jai-aintzineko soinua.

**SEMEA**: Arratsaldean, nor dira pilotariak?

**DOMINGO**: Ez duk pilota partidarik, eskual dantzari multza bat duk lehenik.

**ALABA**: Eta gero dantza nahikoa?

**DOMINGO**: Alabaina, zangoen berotzeko.

**ALABA**: Soinulariak nor dira?

**SEMEA**: Ez huen horren galdetze beharrik. Inglesez kantatzen duten hoietarik dudarik gabe, dena oihu eta garrasi.

**DOMINGO**: Gabrielelek utzi nahiko zaitu nerekin dantzan hartzerat?

**ALABA**: Haren baimena segura dukezu, ez da jeloskorra.

**DOMINGO**: Eta zure baimena izanen dut?

**ALABA**: A, hori, gero ikusiko, zer dantza den...

**DOMINGO**: Izerdirik gabeko horietarik, emeki, emeki.

**SEMEA**: Eskual dantzari multzo bat lehenik.

**DOMINGO**: Arrotzengatik ez duk ongi?

**SEMEA**: Iduritzen zaitak, udan, plaza erdian eskual gazte multzo bat delarik dantzari horien saltzaleak eta erosleak, hor direla inguruan, feirietan tratulantzak abereri begira egoiten diren bezala.

#### ALABA-RAMUNTXXO-DOMINGO-AMA

**AMA** (*Sartzen da*): Hemengo aldi Domingo?

**DOMINGO**: Naski bai, eske etorria naiz. (ALABA joaki da)

**AMA**: Hori bera pentsatzen nian.

**SEMEA**: Ohaintza: azken ofizioa duk eta haren ainzinekoa edozoin moldez eta nun nahi: eskearen egiten.

**AMA**: Bainakien aste huntan ibili beharrak zineztela, bazterturik ezarriak nintian hamar mila libera. Huna.

**SEMEA**: Baina ama; zer dituzu hamar mila libera emaiten?

**AMA**: Urtean aldi bat duk eske hori.

**SEMEA**: Urtean aldi bat diren gauza horiek ote ez ote dira sailduen bestak bezala egun guzietz etortzen?

**DOMINGO**: Baina anderea, ostatuek ere ez dute denek hamarna mila liberarik emaiten.

**SEMEA**: Ostatuek baizik nehork ez likek eske hortan dirurik eman behar. Zeren, bestak direla eta, zer sosak ez dituzte biltzen jauntxo horiek? Bestal, gazteentzat direla sinets arazten dute, baina nor da hor irabazle? Ostalerrak, ostalerrak bakarrik... Eta, gaztetarik bildu dirua ez direk gero, gazteriarentzat uzten... Zoinek ezar lezazke bost ehun mila libera zahar lantegi berri baten muntatzeko? Nehork edo gutik. Hitaz eta nitaz baliatzen dituk, gure galtzeko.

**AMA**: Baina zer derasazue? Ostalerrak, bestal, lantegiak... Nik, hamar mila libera baztertuak nintinan, apezarendako...

**DOMINGO**: A. Zuk uste zinuen kermezarentzat ibilki nintzela.

**AMA**: Alabaina, irigan igandean, apezak errana predikutik gazte batzuk pasatuko zirela gure etxetan; ez ziren otoi nihun geizki errezipituak izan...

**DOMINGO**: Ni, herriko bestentzat nabila eske. Iduritzen baitzauku etxe bakoitzean nahi dutena emanez eske huntan eta gero urteko besta guzietan sartzea kitorik ukanez, hobekiago heltzen direla, ezinez eta kanpotiarrek bezala aldi guzietan eta bakoitzak hogeit hamar mila libera sartzea pagatuz.

**AMA**: Ez baitute gazte urteko kontua pagatzen?



**DOMINGO:** Aurten ez dute egite beharrik izanen.

**AMA:** Zendako ez?

**DOMINGO:** Zeren kontua mutikoez bakarrik pagatzen dute eta ez da zuzen nola Aire lekuan, zazpi anaia baitira, urtean zazpi mila libera paga dezaten eta Lorrondoan aldiz, bestak urrik, seiak neskak direlakoan.

**AMA:** Eta gu bezalakoek zer emaiten dute?

**DOMINGO:** Bakotzak bere ahalaren arabera.

**SEMEA:** Eta batzuek berdin gehiago, bertzeak baino gutiago ez izaiteko.

**AMA:** Bertzek nola eman dute?

**DOMINGO:** Bada denetarik, bost, hamar mila, baina badira ere hamabost mila liberakoak, hogoi eta bost ehun mila liberakoak ere, biga.

**SEMEA:** Attinekoak eta Ttittelateikoak segurraz ere?

**DOMINGO:** Ikusi duk barda Ttittelateiko Brigitte nola bezi zen?

**SEMEA:** Nola buluzia zen erran bahu bederen.

**AMA:** Zer zuen zaia labur horietarik?

**DOMINGO:** Itsaoan bezala: xorak soinean.

**SEMEA:** Gorphutz ederra balu bederen. Hobe luke oraiko zaia luze horietarik erostea bere zango makila txarren gordetzeko.

**AMA:** Eta Murtxoloko nagusi haundiak zonbat eman du?

**DOMINGO:** Hori, nunbeit han, oraiko prezio, oilo eder baten saria: mila libera.

**AMA:** Mila libera bakarrik, ez duk ahalge ere?

**DOMINGO:** Ez da bakarra. Herriko hiru etxalde haundienek bedera mila libera eman dute.

**SEMEA:** Jauregian ere?

**DOMINGO:** Bai, Jauregian, Murtxolon eta Okilobordan.

**AMA:** Okilokoek ere mila libera baizik ez?

**DOMINGO:** Ez anderea eta haren etxetiarrek, batek hiru mila libera eta bertzeak biga.

**AMA:** Eta guk, zonbat eman behar dugu?

**SEMEA:** Nik segurik, sos bat bera ez nezake eman, ama.

**DOMINGO:** Zendako ez?

**SEMEA:** Auzo herrietan ere sobera izanki eta ez baita neretzat besta beharrik herrian.

**DOMINGO:** Aise, iduri litek gibelatuenetarik haizela besta egiteko, ez ahal haiz ongi baliatzen hihaur?

**SEMEA:** Ongi baliatzen, nor da herriko bestez ongi baliatzen? Eta gero zer estimu dute ostaler horiek guretzat? Lehenik gu mokor-araz, eta aski ditu utzi dugunean gero, har eta kanpoan ezar, atea hetsiz.

**AMA:** Ixil hadi seme, orain behar diaguk...

**SEMEA:** Ez ama, ez naiz ixilduko. Nola mintzatzen dira gutaz zimino horiek?

**DOMINGO:** Hori hala duk, zerbeit egiten duena geizki ikusia duk eta deus egiten ez duena zozo batentzat hartua.

**AMA:** Ez baigira gu ere aberatsetarik, bi mila libera emanen ditiat halere.

**DOMINGO:** Milesker anderea.

**AMA:** Ricard-ño bat hartuko duzu elgarrekin?

**DOMINGO:** Berdin; ostatuan urrik ukan ditudanek ez naute burtxoratu...

**SEMEA:** Horrek nik erroarazten.

**DOMINGO:** Zendako?

**SEMEA:** Zendako? Dela herriko besta, dela kermeza edo nik dakita zer, beti herriko dirudunen esku-makil eta zerbitzari oker batzu baizik ez baigira.

**AMA (Edaterat emanaz):** Ez haizela harri Domingo, Ramuntxok ez ditik gauzak guk bezala ikusten.

**SEMEA:** Alabaina, gauza bera adinean joanago eta desberdinago ikusten da, jakitatearen arabera...

**AMA:** Hobe huke hik ere guk bezala jakingabea gelditzea. (AMA joaki da)

#### SEMEA-DOMINGO

**SEMEA:** Gaixo ama, hola bederen ez nintio ikus, zorriak bezala, bizi direnen gainean bizi direnak.

**DOMINGO:** Artzainak, ardieri ez dik, zorrien kontrako erremediarik emaiten?

**SEMEA:** Artzainak berak zorri bilakatzen direlarik ez.  
**DOMINGO:** Garbiki mintzo haiz.  
**SEMEA:** Ni ez nauk ostalera bezala bi eskualde dituen gixona.  
**DOMINGO:** Ramuntxo oraikoan, joan behar diat.  
**SEMEA:** Hago apur bat...  
**DOMINGO:** Eta, zonbat egun oraino Frantziaren zerbitzuko?  
**SEMEA:** Ez nuk oraino kondatzen hasia.  
**DOMINGO:** Hobe, kondatuz luzeago omen duk. Ongi zirezte han?  
**SEMEA:** Bai mutikoa. Hobekiago ezin izan. Beren haurrak bezala artatzen gaitiztek...  
**DOMINGO:** Oraikoan banoak. Tuturruteirat eta gero heldu haiz dantza jaunzien eta fandangoen emaiterat, jan-aitzin?  
**SEMEA:** Berdin bai, ideien pixka bat freskatzeko baizik ez bada ere.  
**DOMINGO:** Zeren duk eror, bertzenaz... (*Joaki da*)  
**SEMEA:** Baietz mutikoa etorriko naizela.

*(Orduan berean, plazan soinua hasten da eta ezti-eztia mutxikoen airea segi ditake)*

#### SEMEA-AITA

**AITA** (*Sartzen da*): Nork zikindu du baso hori?  
**SEMEA:** Nik aita.  
**AITA:** Eta bigarren hau nork erabili du?  
**SEMEA:** Domingo Antxuburukoak.  
**AITA:** Zer nahi zuen harek berriz?  
**SEMEA:** Eske zabilan.  
**AITA:** Kermezarendako?  
**SEMEA:** Ez, herriko bestentzat.  
**AITA:** Nun da Maritxu?  
**SEMEA:** Plazara buruz joana da nik uste.  
**AITA:** Orai nahi nikek jakin egia...  
**SEMEA:** Zer egia?  
**AITA:** Barda mezan izan zireztenez.  
**SEMEA:** Bai aita, barda mezan izan gira.  
**AITA:** Eta gero dantzatzen?  
**SEMEA:** Hortakotz joanak ginen bardako mezarat, dantzetetik berant sarturik ere, egun goizean ohean egoiten ahalko ginelakoan.  
**AITA:** Ederki, ederki, otoitza eta dantza biak nahastika...  
**SEMEA:** Besta berri, otabetan bezala.  
**AITA:** Ez duk berdin, seme.  
**SEMEA:** Eskeko untiarentzat segurik ez.  
**AITA:** Barda ez zirezte mezan izan.  
**SEMEA:** Bai, aita, mezan izan gira.  
**AITA:** Ni ere han nintian eta ez hun nihun ikusi.  
**SEMEA:** Zoin lekutan zinen?  
**AITA:** Beti bezala, gaineko galerian; eta hi?  
**SEMEA:** O, ni, behereko galerian.  
**AITA:** Sekulan ez eta zendako hintzan, barda, behereko galerian?  
**SEMEA:** Elizatik lasterrago ateratzeko aita.  
**AITA:** Nik hi ez ikustea paso, baina nolaz ditake hik ez bainuk ni ikusi?  
**SEMEA:** O, ni ez bainiz beti jenderi begira egoiten, batzu bezala, ikusteko nor den han eta nor ez.  
**AITA:** Barda ez hintzan mezan. (*Semeak ez du arraposturik emaiten*) Zer behar dute erran herritarrek?  
**SEMEA:** Zer zira zu, herritarrek zer erranen dutenaren beldurrez ibilki?  
**AITA:** Zer haiz hi bertzeak ez bezalakoa?  
**SEMEA:** Badira asko bertzek bezala egiteagatik ibilki direnak.  
**AITA:** Zendako ez haiz barda mezan izan?

**SEMEA:** Nork erran dautzu ez naizela izan?  
**AITA:** Erral beraz, Jaun Erretorak, zeren gainean egin duen predikua.  
**SEMEA:** Jesukrixtoren gainean.  
**AITA:** Eta hik, zer diok Jesu-Krixtoz?  
**SEMEA:** Balitakela hartaz ere antzeki bat ederraren egitekoa.  
**AITA:** Zer arizan behar duk orain?  
**SEMEA:** Nere zapetak dirdiratzekoak ditut oraino.  
**AITA:** Alabaina barda elizako bidean zikinduak.  
**SEMEA:** Zure elizarekin. Zer litake barda mezan ez izanik ere?  
**AITA:** Zer erran nahi luke orai, ez haizela izan?  
**SEMEA:** Hori, damu da ez baitzinen jandarma egin, galonak laster bilduko zinituen.  
**AITA:** Zendako ez haiz mezan ibiltzen?  
**SEMEA:** Mezan ibili edo ez, bakotxak bere hautua egiten du, ez ote gira libro?  
**AITA:** Ama nun da?  
**SEMEA** (*Zapeta dirdirutzen ari da*): Subardan edo hor gaindi.  
**AITA:** Bazkarri denboran berriz aipatuko diaguk amarekin eta Maritxurekin bardako mezako istorio hori...  
**SEMEA:** Herriko besta-kari, zer bazkari goxoa egin behar dugun. (*AITA joaki da*) Etxetik urrun etxea gogoan; etxean naizelarik, beste nunbeit izaitea hobe... Sekulan ez gira zoriontsu izaiten ahal.

(*Sartzen da JAKES, Parisen den semea*)

#### SEMEA-JAKES

**JAKES:** Bakarrik?  
**SEMEA:** Jakes. Aspaldikoa, nundik heldu haiz?  
**JAKES:** Parisetik, Ramuntxo, Parisetik.  
**SEMEA:** Xantza duk.  
**JAKES:** Zendako dut xantza?  
**SEMEA:** Hobe baita, Parisen, nehor ezagutzen ez den tokian bizitzea, hemen denek ezagutzen gaituzten lekuetan baino.  
**JAKES:** Ramuntxo, ez holakorik erran.  
**SEMEA:** Zer diotan badakiat eta jakin behar duk, soldadogoa bururatu bezain laster, nik ere, lekuak hustuko ditudala hemendik.  
**JAKES:** Zendako?  
**SEMEA:** Hemengo hendek ez ditek jakitate izpirik ttipikeriaz eta lohikeriaz bertze, ez ditek deus ezagutzen.  
**JAKES:** Hori badakiat.  
**SEMEA:** Nola nahi dut harrapa dezadan neska bat nerekin ezkondu nahiko duena hemen bizitzeko ikusiz zazpi haurride eta ttipienak oraino bortz urte bakarrik, aita-amak gazte...  
**JAKES:** Zer egingo duk?  
**SEMEA:** Hik bezala, lekuak hustu, noraipeit, Pariserat edo ahal dutan lekurat.  
**JAKES:** Nik ere hala egin nian, eskuko xoria airekoaren menturan utzik.  
**SEMEA:** Zer zauk, dolatu?  
**JAKES:** Bai, Ramuntxo, aldi bat baino gehiagotan.  
**SEMEA:** Berdin dik, nik ez diat patitzen ahal hemengo jenden izpiritu bihurria.  
**JAKES:** Zer uste duk aiseago eginen dukala bertze nunbeitekona?  
**SEMEA:** Nik hautua egina diat: lekuak hustuko ditiat.  
**JAKES:** Nik ere atzo, sort herria utzi nian hirirat joaiteko.  
**SEMEA:** Eta egun, zer nahi luke berriz herrirat itzuli?  
**JAKES:** Bai, ahal banu gogotik.

#### SEMEA-JAKES-AITA

**AITA** (*Sartzen da*): Jakes. Zer da, egia ala amentsa?

**JAKES:** Egia aita, egia osoa.

**AITA:** Zer ustegabeko atsegian.

**JAKES:** Neretzat ere ustegabekoa da, aita.

**SEMEA:** Ez gaituzkan abertitzen ahal?

**JAKES:** Tipus-tapasean partitua nauk... Atzo goizean, nagusiarekin samurtu nauk eta segidan lekuak hustu ditiat, hiri madarikatu hartarik.

**SEMEA:** Zergatik samurtu zirezte?

**JAKES:** Hago, otoi, ez dik balio aipatzea ere.

**AITA:** Joaki nuk amaren bila.

**JAKES:** Hi ere, zer haiz, permisionez?

**SEMEA:** Bai. Joan den larunbatean etorria nauk.

**JAKES:** Nere letraz, ait'amek zerbeit erran daukaie?

**SEMEA:** Ni hemen sartzean, ukan berria zituian... Baina ez diaguk luzaz aipatu, norbait bazeian. Hago... Ez nauk oroitzen nor zen... Nor ote zen?

**JAKES:** Ez zauk gogoratzen?

**SEMEA:** A, bai, gure Jaun Mera.

**JAKES:** Zertan zabilan gure etxean?

**SEMEA:** Aita hasia duk pentsonia edo arranda edo ez dakiat zerbeit paperen egiten.

#### SEMEA-JAKES-AITA-AMA

**AMA:** (Sartzen da): Gure Jakes. Nola haiz?

**JAKES:** Osasuna badut.

**AITA:** Hori duk bederen.

**JAKES:** Zuek ere denak ongi dudarik gabe, nun dira Maritxu eta bertzeak?

**SEMEA:** Joaki naiz heien bila, nik badakit nun diren, herriko plazan ditazke. Ez ahal dute guti harritu behar jakitearekin Jakes dugula hemen.

*(Joaki da, kanpoko atea zabaltzean beti bezala berriz ere entzuten da herritik soinua)*

#### JAKES-AITA-AMA

**JAKES:** Zer da soinu hori?

**AITA:** Herriko bestak Jakes, herriko bestak: egun, bihar eta etzi.

**JAKES** (*Bere baitan*): Zonbat gaztek eremaiten dute berekin Eskual Herritik urrun fandango aire eder hori?

**AMA:** Batean xahakoaren besta, bertzean biper besta, laster lukainka besta, beti zerbeit baduk gure herrian.

**JAKES:** Luza gabe egiten ahal dituzte kuia bestak ere. Alabaina, lanik ez den lekuan bota dantza, lantegien orde dantzategiak eginez.

**AMA** (*Jan aintzinekoa eskakiniz*): Herriko besten ohoretan.

**JAKES:** Xintxin.

**AITA:** Aurten ere behar dugu lehengo dantza zaharretarik eman gunbiek.

**AMA:** Bai aise, zer panpirinak gu gazte horien erdian.

**JAKES:** Joan den gauean, aments izigarri bat egin dut.

**AITA:** Zer aments?

**JAKES:** Ez dakit nik uste zeruan ibili naiz.

**AMA:** Zer ikusi duk amentsetarik?

**JAKES:** Ilargia eztiaren kolore beri begira, izarrak dantza uraren gainean, igelen kantuak entzuten eta sorropila bat hunkitzen nuen ez baita Parise guzian haren goxotasuna eta usain ona duen neska bihirik. Zer bozkario ezin erranezkoa: mendiak, ixilik elkarri musuka lotuak zeuden, haize hegoak perekatzen ninduketaria iratzeek bezala. Pentzeak perde ziren eta bazen maluruen usain gozo nbat erramu hostoenarekin nahaztekatua iduri Urtxoak airean joaki ehunka eta zanp.

**AITA:** Zer, ihiztariak?

**JAKES:** Ez, aita, iratzartu naiz, beti bezala, Parisen, arrabotsaren eta errautsaren erdian tenoren arrangura eta nagusien beldurrean.

**AMA:** Gaixo, Jakes, ni ez nuk behin ere izan Parisen.

**JAKES:** Beharrik, ama, zoriontsuago zira hemen.

**AITA:** Beti zerbeit baduk eta denetan; hori gauza segurra.

**AMA:** Gure herrian ere aurten baduk sekulan baino gehiago udatiar.

**JAKES:** Hameka hilabete, kearen erdian lasterka, murru eta ferlanken artean iragan ondoan segur irabazia dute hilabete batez bederen hemengo aira sanoan deskantsuan hatsa hartzen.

**AITA:** Gure eskualdea luza gabe pausa leku ekarria izanen omen da.

**JAKES:** Orain arte zer da? Herrian ez da gehiago haurrik, xaharrak eta arrotzik baizik.

**AMA:** Gaineko ostatuan ere aurten hamar ganbera berri gehiago egin ditizket.

**JAKES:** Alabaina, hemengo etxeko jaun eta ostalerreri sinets arazia dute "turixmoa" aski dutela bizitzeko. Baina, irriz nago, irriz.

**AITA:** Zendako?

**JAKES:** Zeren hori iretsarazia diotenak berak ari dira horien itotzen, bere *Super Marché* horiekin.

**AITA:** Arrazoina duk, Jakes, horrek badik itxura.

**JAKES:** Horiek hola, nere letra ukan duzue?

**AMA:** Bai, seme, bai, baina ez diaguk oraino erantzunik egin.

**JAKES:** Orain, ez duzue egite beharrik ere izanen.

**AITA (Edaterat eman ez):** Orain nik emanik?

**JAKES:** Berdin. Oroitzen naiz, joan den urtean zoin goxoki hartu nuen hilabete bat pausa nere etxean.

**AITA:** Aurten eta gero ere etortzen ahal haiz gostuan.

**JAKES:** Ez da berdin.

**AMA:** Ateak zabal-zabalik dituk, seme; ez ote haiz hire etxean?

**JAKES:** Bai eta ez.

**AITA:** Zendako mintzo haiz hola?

**JAKES:** Zeren etxea zuena da, zazpi haurride gira eta agian hemendik harat ez naiz beti bakarrik izanen. Lehenik bida eta gero berdin gehiago.

**AMA:** Noiz arte etorria haiz Eskual Herrirat?

**JAKES:** Agian betikotz. Asea naiz lepo zintzurreraino Pariseko bizimoldeaz.

**AITA:** Eta, hemen, zer egingo duk, seme?

**JAKES:** Letran ezarria dut aski garbiki, aita.

**AMA (Bere baitan):** Gure borda.

**JAKES:** Zer duzu hoin ilun, ama?

**AMA:** Deusik ez, Jakes, deusik ez. (Nigarrez hasten da).

**AITA:** Zaude ixilik, emaztekoa; ni ere izerditan nago.

**AMA:** Hobe da aise izerdiaren sukatzeta nigarraren xukatzeta baino.

**JAKES:** Baina, otoi, errazue zer gertatzen den.

**AITA:** Huna... Berdin goiz edo berant, jakin behar duk. Hire letra ukaitean, oedukotz gure borda...

**JAKES:** Gure borda?

**AITA:** ...ez zukan gehiago gurea.

**JAKES:** Nolaz hori?

**AITA:** Jaun mera gure etxerat etorri duk eta...

**JAKES:** Noiz etorri da?

**AITA:** O... Ez dakiat zuzen... Baizik eta bazuela adiskide haundi bat, bortz miliun eman lezazkena gure borda zahar horan.

**JAKES:** Eta zuk abian saldu?

**AITA:** Nik edo biek.

**AMA:** Jaun auzapezaz ere ederki baliatzen baigira seme. Otoetako prozedurak, horri esker, ez ditiaguk pagatzen, bera poliz baten adiskidea delako.

**JAKES:** Eta orain gure bordaren jabea nor da?

**AITA:** Jaun merak dioenez, ez duk nor nahi; gerlako kolpatu haundi bat duk, gizon ezagutua eta izigarri estimatua. Zer nahi medela eder baduela papoan; horrek salbatua omen dik Frantzia hiruetan segurik.

**JAKES (Xutitzen da):** Biba hura.

**AMA:** Zer duk, Jakes?

**JAKES:** Deusik ez, ama, deusik ez, zuk ere gauza bera erran dautazu ez du aspaldi.

**AITA:** Hik emanen hintuen borda zahar hortan bortz miliun?

**JAKES:** Ez, aita, baina dena da heian nahi duzunez semea auzo ala nunbeitoko norbeit sekulan ikusia ez duzuna?

**AMA:** Guhaur ohartu ere gabe, zepoan sartu gaituk, Jakes.

**JAKES:** Neska batzuek ere hola egiten dute: bihotza hesten maite dutenari, moltsa idekitzeko beren ohoinari.

**AITA:** Ez haitugu laguntza eskasean utziko seme; bertzen ixilik ukanen dun bortz miliun horietarik bat hiretzat.

**JAKES:** Tratuan nahi baduzu arizan jaun merarekin, har zaite, hura makinuna da: ni, ez.

**AMA:** Baina, Jakes, miliun bat...

**JAKES:** Ez, ama.

**AITA:** Sos beharrak zernahi eginarazten dik, seme.

**JAKES:** Herriko buruzagi batek ere bai, aita.

**AITA:** Orain hola duk, baizuek saltzen ditiztek bordak eta bertzek berdin lurrak.

**JAKES:** Bai, eta bertze batzuek berriz beren herriko gazteak, eta beren haurrak.

**AMA:** Barka zak, Jakes, barka zak, otoi.

**JAKES:** Ez duzu barkamendu eskatze beharrik, ama; ez da zuen hutsa jaun merak gure borda erosia balin badu, zuek nere letra hartu baino lehen.

**AITA:** (*Nigarrez. Bere baitan*): Jakin ukan banu.

**JAKES:** Xukazkizu begi horiek, aita, ala ez ote dakizu emazteak eta haurrak direla bakarrik nigarrez hartzen?

**AITA:** Zer nahi duk, nere bihotza ez baita harriz egina.

**JAKES:** Hola balitz, hobe. Borrak harria purruskatzen baitu eta burdin ganean aldiz beti punpatzen baita. Frantzia salbatu duenak, eta Jainkoak lagun zaitzabela...

**AMA:** Norat hoa, seme?

**JAKES:** Ez dakit, ama... Nik ez dut aterberik. Batzuek badute bat Frantzian, beste bat Espainian eta hirugarrena Eskuak Herrian... Ni, deus gabe naiz... Alta, ez nautzuen gauza haundirik galdatzen... Ez nautzuen gauza haundirik galdatzen. Borda zahar bat, aspaldian hutsik dagona... Pagatuko nautzuen prezio zuzena... Ez nautzuen gauza haundirik galdatzen. Agur, ama...

**AMA:** Jakes, otoi, Jakes, hago gurekin.

**JAKES:** Ez, ama.

**AMA:** Ez haut joaiten ikusi nahi. Nahiago diat gorde. (*Eta joaki da*).

#### AITA-JAKES

**AITA:** Jakes, ez zakala haurkeriarik egin... Biziki pena haundia eginen daukuk.

**JAKES:** Pena haundiena egina da. Agur, aita.

**AITA:** Dominika, Dominika, Jakes badoa... (*Eta joaki da*)

**JAKES:** Batzutan uste ginuke, norbeit girela... Eta ororen buru, deus ez gira.

#### JAKES-MARITXU

**MARITXU** (*Sartzen da*): Jakes, bakarrik haiz... (*Besarkatzen dira*)

**JAKES:** Bai, bizian, beti bakarrik gaitun.

**MARITXU:** Bazakiat bordaren berri. Amak zerbeit erran daitak. Zer egin gogo duk?

**JAKES:** Zer egin, Maritxu? Etorri bezala joan...

**MARITXU:** Norat joan?

**JAKES:** Nihaurek banaki...

**MARITXU:** Hago hemen...

**JAKES:** Ez. Ez nun gehiago minuta bat ere egoiten ahal.

**MARITXU:** Jakes, min eginen deat baina adi nezale... Gauza errexena joaita duk.

**JAKES:** Zer dion?

**MARITXU:** Bai, joan, joan, joan... Baina hitz horien partez behar litakek erran: geldi, geldi, geldi... Gure duk, alabaina, gure herriko gidarren hartzea... Ihesi eginez, ez duk

gure Herria aintzinatuko... Galduko baizik... Egiazko problemeri burua itzultzea, hori ez duk gizonki jokatzea...

**JAKES:** Maritxu, min handiegia egiten daitan.

**MARITXU:** Gure galtzaileak hor dituk, beti erene, beti berme. Hemendik joaitea, horieri amore emaita duk... Geldi hadi, Jakes, geldi hadi...

**JAKES:** Bihotza sobera zauritua dinat... Ez hut gehiago entzuten ahal... Begiak erretzen ari zaiztan, burua sutan dinat. Agur, Maritxu.

**MARITXU:** Jakes. (*Besarkatzen dira. Eta Jakes, emeki-emeki kanpora doa. Soinua entzuten da*) Jo soinua, jo... Egin besta... Jo soinua, jo... Ahantz nor giren eta nora goatzin. Hets begiak eta tapa beharriak. Lokat gaiten... Edo izaitekotz gauden lo... Loari loa dario... Iratzartzeak ditu lanak emanen... Baina gu iratzartzen hasiak gira. Eta egun batez denak iratzartuko gira... Orduan, orduan, txintxin mariak.

(*AITA eta AMA agertzen dira*)

#### MARITXU-AITA-AMA

**AMA:** Jakes nun da?

**ALABA:** Joana.

**AMA** (*Lasterka, leihora buruz doa*): Jakes, Jakes.

**AITA:** Ikusten duzu?

**AMA:** Bai.

**AITA:** Ikusten duzu?

**AMA:** Gure borda, bai.

**AITA:** Ikusten duzu?

**AMA:** Borda, bai.

**AITA:** Ikusten duzu?

**AMA:** Bai?

**AITA:** Gure semea ikusten duzu?

**AMA:** Hantxet doa, hantxet doa.

**AITA:** Ikusten duzu?

**AMA:** Ez.

**AITA:** Gure borda saldu.

**AMA:** Eta gure semea galdu.

**ALABA:** Borda saldu, semea galdu... Baina hori zer da? Ez ote zirezte bada ohartzen, denen galtzen ari girela?

JEAN-PIERRE MENDIBOURE

1971ko udazkenean Heletan